



Tokiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2016ko maiatzaren 26an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

Ekonomia jasangarria Legazpin
Nola ulertzen dugu?
Ze aukerak sortzen dira?

Legazpiko Agenda 21 Foroaren gaurko tailerra, galdera horien bueltan egin dugu. Horixe da Eskolako Agenda 21aren barruan Legazpiko ikastetxeek ikasturte honetarako aukeratu duten eta ikasturtean zehar landu duten gaia. Horregatik, eta urtero garai honetan egiten dugun antzera, **gurekin izan dira Haztegi ikastolako eta Olazabal institutuko ikasleen eta irakasleen ordezkariak.**

Beraz, ezaguerak eta begiradak batuz, ikus dezagun modu laburtuan bilera nola joan den eta bertatik ateratako ondorio nagusiak zeintzuk izan diren.

1. Parte hartu duen taldea

Guztira **23 pertsona** bildu dira, eskoletako ordezkariak barne. Zalantzarik gabe, ikuspuntu eta ikusmolde desberdinen elkarketa aberatsa izan da.

Hona hemen izen eta abizenez:

- **Bizilagunak:**

Juncal Fernandez – Miren Pildain – Arantza Arizmendi – Gloria Martinez de Guereñu – Gurutze Beitia (Legazpiko Ingurugela) – Monica Monteagudo – Montse Vallejo– Isa Sanz – Rogelio Barbeira – Juan Carlos Agirre - Pilar Makibar – eta bere izena hartu ez genuen bizilaguna.

- **Eskola Agenda 21eko irakasleak eta ikasleak:**

Maite Odriozola (Haztegi ikastolako irakaslea) - Koro Zabaleta (Olazabal institutuko irakaslea) – Jon Madinabeitia eta Irati Arnedo (Haztegi ikastolako ikasleak) – Aitor Martinez eta Ane Leizeaga (Olazabal institutuko ikasleak) Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxeko irakaslea)-.

- **Udal arduradunak:**

Koldobike Olabide (Alkatea) – Oscar Valbuena (zinegotzia) - Eric Galvez (zinegotzia) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen saileko teknikaria)

- **Laguntzaile teknikoak:**

Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2. Berriak

Gai nagusia aztertzeari ekin aurretik, modu laburrean Inma Hernandez teknikariak dauden berriak errepasatu ditu eta ondorengo gaiei buruzko informazioa eman digu.....

Egindako ekintzak:

- Maiatzaren 4an eta 13an, [Bidezko Merkataritzaren Eguna](#) ospatu zen Legazpin, kaleko animazioarekin eta postuekin.

Hurrengo ekintzak:

- Datorren ekainaren 5ean [Ingurumenaren Munduko Eguna](#) ospatuko da. Aurten urzikloaren gaineko datuak zabalduko dira.
- [Hondakinei dagokienez, 2 kanpaina egingo dira](#). Kanpaina horiek joan den 2015eko azaroaren 21eko Agenda 21eko Foroan egin genuen hausnarketaren eta proposamenen ondoren sortutakoak dira. Zehazki:
 - Latxartegi parkeko hondakinak bilduko dira eta jendaurrean ikusgai jarriko dira. Lan horretan Haztegi ikastolako ikasleek lagunduko digute.
 - Ekainaren 8an, arratsaldeko 18:00etan, hondakinei buruzko hitzaldi bat eskainiko da Gizarte-zentroan, Buztintegi elkartearen laguntzarekin.
- Eta azkenik, ekainean kalean aurkituko dugun ustekabe bat izango dugu..... Adi egoteko esan digute baina ez ditugu zehaztasun gehiago.

Berri horiek entzun ondoren, gaurko tailerraren helburu nagusiari heldu diogu.

3. Gaurko gaia: [ekonomia jasangarria](#)

Kontzeptutik abiatuko gara, bere **zabaltasuna** azpimarratuz. Interneten sartu eta "ekonomia jasangarria" jartzen badugu, ez da definizio bakarra azalduko. Aitzitik, ikuspuntu eta ñabardura desberdinak ditu.

Horregatik,

- Lehenengo ariketa bat egin dugu eta LEGO piezekin **Legazpiko Agenda 21eko Foroan ekonomia jasangarria nola ulertzen dugun** eraiki dugu, beti ere gaia udal mailara ekarrita.
- Hurbiltze horri esker, bigarren urrats batean, **Legazpiko ikastetxeek gaia nola landu duten eta lortu dituzten emaitzak** ikustea lortu dugu, beti ere Eskolako Agenda 21aren baitan.

Segidan ikusiko dugu.

- **Foroak, nola ulertzen du ekonomia jasangarria Legazpin?**



LEGO piezen antolaketak Legazpin **taldeak ekonomia jasangarria nola ulertzen duen** partekatzen eta eraikitzen lagundu digu.

Ekonomia jasangarria Legazpin, honela ulertzen dugu...

- **Pertsona eta ingurumena** –bizitza ahalbidetzen duen ingurunea dela ulertuta– **erdian** jartzen duen ekonomia da.
- Posible izateko, **guztion** –sektore desberdinak, erakunde desberdinak, pertsona desberdinak,...– **inplikazioa eta laguntza** eskatzen duen ekonomia da.

(jarraitzen du)

Ekonomia jasangarria Legazpin, honela ulertzen dugu...

- Legazpin, **nitxo edo eremu desberdinak** daude eta horietatik abiatuta eta horietan egin behar da lan:
 - Ekonomia finantzario desberdina edo alternatiboa: banka etikoa, tokiko txanpona,..
 - Zaintzaren ekonomia: pertsonaren zaintza –arreta soziala, botikak–, eta ingurumenaren zaintza –biodibertsitatea, mendiak, basoak, flora eta fauna–, eta baita hiri-inguruaren zaintza ere –kaleak, parkeak, lorategiak...–.
 - Garraioaren ekonomia: eredu jasangarriagoa lortu beharra, garraio publikoan eta garraio bide ez-motordunetan oinarrituko dena.
 - Elikagaien autohornitzearen eta autokontsumoaren Ekonomia, indartutako lehenengo sektoreari lotutakoa.
 - Ekonomia energetikoa: energiaren autosorkuntza eta autohornitzea, energia berriztagarriak, ...
 - Baliabide naturalen ekonomia:
 - Ekonomia lagungarria eta trukekoa, non ideiak, baliabideak, denbora, trebetasunak,.... partekatuko diren.
 - Berrito erabiltzearen eta berritzearen ekonomia, ondasun materialetan nahiz etxebizitzaren sektorean.
 - Horrek guztiak eskatzen du: **begirada globala, integratzailea eta oreka eta guztien ongizatea bilatzea.**
 - Talde-lanaren, **sormenaren, berrikuntzaren**,... bilaketa etengabea indartuz

Definizio zabala eta aberatsa taldeak egin duena. Horrek balioan jartzen du Legazpi bere errealitatekin eta ingurutik abiatuta, jasangarritasun hori lortzeko dituen moduak.



Hausnartze eta eraikitze kolektiboaren ariketa bikaina!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Ikastetxeek, nola landu dute gaia eta zeintzuk izan dira lortu dituzten emaitzak?

Ekonomia jasangarriaren kontzeptua Legazpira hurbiltzeko ariketak, ikastetxeek **Escolako Agenda 21aren** barruan aurten egin duten ahalegina eta lana ulertzeko, jasotzeko eta aitortzeko balio digu.

Hiru ikastetxeren izenean (Olazabal institutua, Haztegi ikastola eta Domingo Agirre eskola) **Jon, Irati, Aitor eta Anek** arretaz eta zehaztasunez adierazi digutenaren arabera, hezkuntza-maila bakoitzak ekonomia jasangarriaren alderdi edo eremu bati erreparatu dio, diagnostiko bat eginez eta norberarentzako konpromisoak eta Udalari eskatzen dizkioten konpromisoak eginez.

Ondoko koadroak horren guztiaren laburpena da:

Legazpin ekonomia jasangarriari dagokionez...		
Maila	Aztertutako alderdia	Ikasleen konpromisoak
LH: 1. eta 2. mailak	Zertan egiten dute lan gizonak eta emakumeek?	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona bakoitzaren borondatea errespetatuko dugu, estereotipoak eta generoa dela eta diskriminatzea saihestuz.
LH: 3. eta 4. mailak	Kontsumo-ohiturak eta erosketa jasangarria.	<ul style="list-style-type: none"> Behar ez ditugun jostailuak, liburuak, arropa,... partekatuko ditugu.
LH: 5. eta 6. mailak	Baserriaren jasangarritasun-maila.	<ul style="list-style-type: none"> Baserriko produktuak erosiko ditugu, bertakoak eta garaian garaikoak.
DBH eta Batxilergoa	Udalerriko azpiegituren eta enpresen jasangarritasun-maila. Eredu ekonomikoak.	<ul style="list-style-type: none"> Garraio publikoa erabiliko dugu gutxiago kutsatzeko. Energiaren kontsumoa murriztuko dugu, kargagailuak deskonektatuz eta argia itzaliz behar ez ditugunean. Gure kontsumoa kontrolatuko dugu, gehiegi ontziratutako produktuak erostea saihestuko dugu eta berrerabil daitezkeenak erosten saiatuko gara.

Eta Legazpiko **Udalari egiten dizkioten proposamenak**, hauexek dira:

Ikastetxeek Udalari egiten dizkioten proposamenak:

- **Emakumeen eta gizonen lanak berdintzearen** aldeko kanpainak egitea; eta atzerritarren eta adimen-urritasunen bat duten pertsonen **integrazioa** errazteko ekimenak sustatzea.
- Udalaren eta bere mendeko erakundeen **kontratazioetan eta erosketetan jasangarritasun-irizpideak** sartzea.
- Bizikletentzako **bidegorriak** mantentzea.



Jon, Irati, Aitor, Ane, eskerrik asko!
Bikain aritu zarete!

Lan bikaina ikastetxeek egin dutena!

Eta beste errekonozimendu bat egin nahi dugu; izan ere, Olazabal institutuko Anek eta Aitorrek apirilaren 27tik 29ra Bilbon ospatu zen Europako Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Biltzarrean hartu zuten parte.

Helbide honetan ikus daiteke bideo labur bat:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/32302-euskadiko-adierazpenarekin-bat-egin-dute-europako-hiriek-eta-herriek-hiri-gizarte-erronkei-aurre-egiteko-bide-orri-berriarekin>



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Biltzar horretan, beste gairen artean, ekonomia jasangarria aztertu zen eta, beraz, parte hartze horrek gaur hemen partekatu dugun eta ikasteko eta elkarrekin sentsibilizatzeko baliagarria izan zaigun hausnarketa indartzen du

4. Agur esaten dugu ekainaren 16ra arte

Amaiera ematen diogu gaurko tailerrari, helburua bete dugulakoan eta pertsonen artean, Tokiko Agenda 2eko Foroaren eta ikastetxeen artean, gai desberdinen artean,... zubiak eraiki ditugulakoan.

Zain izango gaituzue datorren ekainaren 16an; egun horretan berriro helduko diogu Legazpi Klima 2030 proiektuari eta, ondoren, udako atsedena hartuko dugu.

**Zain izango gaituzu!
Eskerrik asko bidea egiten jarraitzeagatik.**